

3000 HIZTEGI PRAKTIKOA

**Euskara-gaztelania
Castellano-euskara**

**Hiztegi Batua era didaktikoan
Adorez 16
2018**

KARMEL aldizkari honetan aspaldidanik dihardugu lankidetzan BOSTAK BAT Kultur Elkartearekin. Talde horrek hiztegiaren bat argitaratu izan duenean, aurkezpena eskaini izan diogu aldizkari honetan, era horretara, gure harpidedunei aholkari eta informaziorik zehatzena helarazteko.

Oraingo honetan, azken urteotan jo eta ke jardun ondoren burutu izan duten hiztegi ederra eskaini digute. Uste dugu, euskara estandarra burutzen ari den une honetan, oso lagungarri izan dezakegula. Badakigu, bestalde, euskara batuak irekitako bideetatik aurrera eginez, eguneroko harremanetan oinarritzko baliabide ditugun euskalkiei buruzko hainbeste informazio aberats eskaintzen diguna.

Hori horrela, zehaztasun gehiagorik gabe eskaini nahi dizuet liburuari erantsitako aurkezpena, aldizkari honek ematen didan aukera erabiliz. Izan ere, bertan jasotzen dira zehazki eta argitasun handiz hiztegi honen berezitasunak. Jarraian, beraz, hiztegiari erantsirik datorren sarrera doakizue, hitzez hitz:

adorez

HIZTEGIAK

3000

*Hiztegi
Praktikoa*

Euskara-gaztelania
Castellano-euskara



Hiztegi Batua era didaktikoan
adorez16
2018

“Bostak Bat Kultur Elkarteko kideok aspaldian ari gara geure ADOREZ hiztegiak eguneratzen, Euskaltzaindiak terminologia alorrean arau berriak hartu ahala hiztegietan aplikatuz. Oraingo honetan, lehenago argitaratua genuen *Diccionario Escolar 3000 Eskola Hiztegia* eta hura burutua izan zenetik hona euskararen normalizazioan eman diren urratsak kontuan hartuz, Hiztegi Praktikoa deitu dugun hau burutu dugu.

Koldo Mitxelena jakintsuak 1970ean idatzi zuenez, zenbat eta informazio zabalagoa eman, edozein hiztegi hainbat eta praktikoago izatea lortzen du. Honako hau prestatzean, hori kontuan harturik jokatu dugu termino bakoitzaren inguruan informazio zabala biltzen saiatuz.

Era guztietako hiztegiak sinonimoenak, definiziozkoak, elebidunak, orokorrak, oinarrizkoak, irakaskuntza-alorrekoak, motxilakoak- egiten jardun izan dugu 35 urtean zehar, eskarmentu ederra lortuz. *3000 Hiztegi Praktikoa* izeneko honetan, oso nabarmenak dira aipaturiko Diccionario Escolar 3000 Eskola Hiztegia deituak izan dituen gehitzeak eta egokitzapenak, bai euskara-gaztelania aldean, baita gaztelania-euskara aldean ere. Laburbilduz, hurrengo hauek nabarmenduko nituzke:

1. Euskara-gaztelania aldean: Euskaltzaindiak 2018ra arte onartutako termino guztiak (onomastika alorrekoak izan ezik) jaso dira. Euskaltzaindiak argitara emandako definiziozko bi liburukietan ez ezik beste zenbait zerrendatan (fisika, kimika, astronomia, administrazio alorrekoetan) ageri direnak ere bai.

2. Gaztelania-euskara aldean, irakaskuntza munduan ez ezik gazte eta haur munduan erabiliak diren terminoak ere jasotzen ahalegindu gara. Horretarako, haurrei eta gaztetxoei zuzendutako 13 hiztegitako terminoen azterketa egin da eta onarpen zabala duten terminoak jaso dira. Era berean, **aparteko ahaleginak egin ditugu euskara-gaztelania aldeko euskal lokuzioak gaztelania-euskara aldean txertatzen**, euskararen barneko muina aditzera ematen baitute.

3. Alde bietan kurtsibaz eskaintzen dira Euskaltzaindiak onartutako terminoak. Teknika horrekin, erabiltzaileari estandarizatutako terminoei buruzko informazio paregabea ematen zaio.

4. Euskalkiei buruzko erreferentziak jaso dira. Oraingo honetan –aurrekoetan berariaz isildu ondoren– beren-beregi adierazten da euskalkiari buruzko aipamena, kontsulta bila hurbiltzen denak termino bakoitzaren erabilera-eremuaren berri izan dezan. Kontuan izan behar da, dena den, euskalkiaren markek eremu nahiko zabala adierazten dutela.

5. Zenbait laburduraren erabilerari eutsi diogu, informazio gehigarria ematen dutela uste baitugu. Gaur egun Euskaltzaindiak bere hiztegietan ezabatu baldin baditu ere, guk interesgarriri iritzi diogu halako laburdurak erabiltzen jarraitzeari. Horrela, kako artean e. jartzen diogu baztertzeko den terminoari; ikus eransten diogu gutxi erabilia / zaharkitua edota bazterrekoa den terminoari eta h. erabiltzen jarraitzen dugu, ondoko terminoa hedatuagoa edo egokiagoa dela aditzera emateko.

6. Zientzia arloko terminoak nabarmentzen dira. Zientzia arloko terminoei eremuaren erreferentzia jarri diegu. Botanika edota zoologia arloko terminoen kasuan deitura zientifikoa erantsi zaie.

7. Eranskin lagungarri batzuk jarri ditugu hiztegiko bi aldean artean. Euskara-gaztelania / gaztelania-euskara aldean artean bereizketa-tartea jartzeko gramatika txikia erantsi dugu. Aditzari dagokionez, aditz forma batuak nahiz bizkaierakoak laukietan eta alfabetikoki ordenatuta eskaintzen dira, aditz batutik bizkaierara eta bizkaieratik batura kontsultak erraz egiteko eran. Guztia paper mota ezberdinez, kontsulta-bide erraza eskainiz.

8. Erdal aditzaren laburpen osoa ere eskaintzen da, hiztegi hau elebiduna dela kontuan izanik. Aditzaren formak –erregularrak nahiz irregularrak– eskaintzen dira, halakoetan zalantzak dituenak kontsulta egiteko nahiz ikasteko bidea izan dezan. Paper mota ezberdinez datoz, era errazean aurkitzeko.

9. Adierak Euskaltzaindiak darabilen ordenari jarraiturik, zenbakiz egokiro berezita, jartzen dira. Garrantzi handikoa dugunez terminoen adiera ezberdinak ongi nabarmentzea, zenbakiak beltzez jarrita eskaintzen dira. Bide batez, ahalegin handia egin dugu Euskaltzaindiaren hiztegian ageri diren ordena berean eskaintzen, euskarako formaren gaztelaniazko ordezkioak ezagutu nahi dituenari aukerak emanez.

10. Laburduren zerrenda. Laburdura bidez ematen dira aditzera terminoen ezaugarri gramatikalak (*iz.*, *adj.* *adb.*, *lok.*) nahiz aditzen komunztadurak (*du*, *da*, *dio*, *zaio* / *vt.*, *vi*, *vr.*). Baita beste zenbait argigarri ere, hala nola, eremu zientifikoaren laburdurak (*Mat.*, *Erl.*, *Fil.*, *Zientz.*) edota landare eta animalien izen zientifikoak (*Canis lupus*, *Picus sp.*; *Viscum album*, *Pica pica*).

11. Praktikotasuna edukiaren aldetik:

- Batetik, esan den bezala, **Euskaltzaindiak euskara baturako onartutako terminoak** (40.000tik gora) erraz kontsultatzeko aukera ematen du.
- Bestetik, gaztelania-euskara aldean **Euskaltzaindiak onartutako terminoak** (30.000tik gora) **kurtsibaz eskainita** dakartzanez, benetan praktikoa gertatzen da euskara batua ikasteko nahiz terminoak egoki idatzita erabiltzeko.

Ikusten duzunez, liburu-formatuari dagokionez ere, –arloan arteko bereizketak paper mota ezberdinez ongi berezitaso era praktikotan bi zutabetan argitaratua izan da.

Ase bitza zure egarri guztiak eta euskara sakonagotik eza-gutzeko eta erraztasunez erabiltzeko baliabide izan dezazula””.

Besterik ez. Onuragarri izan dezazuela sortutako zalantzak argitzeko nahiz zuen euskara aberasteko.

Patxi Uribarren Leturiaga

EZAUGARRI NAGUSIAK / PRINCIPALES REFERENCIAS	
Euskara batuko hitzak letra etzanez. Voz del Euskara Unificado: en cursiva.	<i>ababor, abadia, abagune...</i>
“e.” duena: baztertzea. Voz con “e.”: se deben descartar.	<i>agerpide: e. agerbide; agertarazi: e. agerrarazi...</i>
“ikus” duena: ondokoaz ordezkatzekoa Voz con “ikus” a sustituir por la anexa.	<i>alde aurretik: (ikus alde aurretik); agorreria: (ikus agorte)</i>
“h.” duena: albokoa hobesten da. Voz con “h.”: preferencia por la anexa.	<i>abaniko: (h. haizemaile); agorril (h. abuztu)</i>
“(/)” bidez bereziak: bata nahiz bestea. Voces con “(/)” a elegir entre ambas.	<i>goraino / mukuru / leporaino; hijo/ja; bueno/na;</i>
“(-)” marraz: lotuta nahiz banatuta. Voces con “(-)”: con guión o separadas.	<i>abade(-)etxe: abade-etxe / abade etxe</i>
“-”duten terminoak: beti lotuta Voces con “-”: siempre unidas.	<i>bete-bete, hasi-masi, kristau-demokrata, kuku-praka</i>
da/zaio (nor/nor nori): komunztadura ... concordancia verbal (v. intransitivo)	<i>-alargundu, alargun, alarguntzen: da ad. envidar -aitzindu, aitzin(du) aitzintzen: zaio ad. adelantarse</i>
du/dio (nork/nork nori): komunztadura ... concordancia verbal (v. transitivo)	<i>-albora utzi, utz, uzten: du ad. marginar -adarra jo, jotzen: dio ad. tomar el pelo</i>
1/2/3...zenbakiak: adiera desberdinak 1/2/3... acepciones diferentes	<i>agerpen: iz. 1 aparición. 2 edición. 3 representación. 4 escena apertura: f. 1 irekidura, irekigune. 2 zirrikitu. 3 zulo, aho</i>
(**) duten sarrerak: jakin beharrekoak. Voces con (**): imprescindibles.	<i>aita:**, aitaita:**, ama:**, amama:**, etxe**, fruitu:**</i>
(*) duten sarrerak: oso beharrezkoak. Voces con (*): muy necesarias.	<i>abere:*; aberri:*; abertzale:*; abesti:*; abisu*</i>

Laburdura gramatikalak: euskarakoak: / Abreviaturas gramaticales: **en euskara.**
iz. (izena); *adj.* (adjektiboa); *ad.* (aditza); *adb* (adberbioa); *lok.* (lokuzioa); *interj.* (interjekzioa); *konp.* (konposatuak); *h.e.* (hitz elkarketa); *konj.* (konjuntzioa); *junt.* (juntagailua); *irud.* (irudizkoa); *pl.* (plurala); *part.* (partikula); *lgart.* (lagunartekoa); *beh.* (Behe mailakoa); *haur.* (haur hizkuntza); *labur.* (laburdura); *adkor.* (adikorra); *zenbtz.* (zenbatzailea); *banantz.* (banantzailea); *postpos.* (postposizio); *onomat.* (onomatopeia); **da/zaio** (nor / nor nori); **du/dio** (nork / nork nori)

Laburdura gramatikalak: gaztelaniakoak: / Abreviaturas gramaticales: **en castellano.**
m. (masculino); *f.* (femenino); *s.* (sustantivo); *adj.* adjetivo; *adv.* adverbio; *conj.* (conjunción); *interj.* (interjección); *disj.* (disjunción); *cond.* (condicional); *loc.* (locución); *comp.* (comparación); *pers.* (personal); *ord.* (ordinal); *num.* (numeral); *pron.* (pronombre); *col.* (coloquial); *fam.* (familiar); *vulg.* (vulgar); *fig.* (figurado); *pl.* (plural); *part.* (partícula); *p.p.* (participio pasivo); *v.* (verbo); *vi.* (v. intransitivo), *vt.* (v. transitivo), *vr.* (v. reflexivo);